



BIKAINTEK 2019

URTEROKO JUSTIFIKAZIOA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

DOKTOREAK KONTRATATZEKO LERROA

ARAUBIDEA

AGINDUA, 2019ko otsailaren 20koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena (EHAA 42. zk., 2019ko otsailaren 28koa).

JUSTIFIKAZIOA AURKEZTEKO MODUA (12.2. artikulua)

Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean, telematikoki.

JUSTIFIKATZEKO EPEA (24. artikulua)

Hilabeteko epean aurkeztu beharko da dokumentazioa, urtealdi bakoitzaren exekuzio-epea amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

JUSTIFIKAZIO BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (24. artikulua)

1. Ordainketa eskaera.
2. Jarraipen zientifiko-teknikoko urteko txostena, laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzekoa. Txosten horrek, honako hauek jasoko ditu:
 - a. Kontratatutako ikertzaileak gauzatutako jarduerak.
 - b. Ikertzailearen lanordu txostena (emandako eredia erabili beharko da).
 - c. Ikertzailea kontratatzeagatik entitateak lortutako onurak.
 - d. Egin ohi ziren jardueraz gain gauzatu diren I+G lan gehigarriak.
 - e. Egindako lanaren ondoriozko patenteak.
 - f. Egindako lanaren ondoriozko argitalpenak.
 - g. Ikertzaileak dituen etorkizuneko lan aukerak enpresan.

3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:
- a. Erantzukizunpeko adierazpena, proiektuaren arduradunak eta kontratatutako pertsonak sinatua, honako hauek zehaztuko ditu:
 - i. Ikertzaileak jasotzen duen ordainsaria, kostu gordina eta enpresaren kargurako gizarte-aseguruak bereizita. Gizarte Segurantzaren kuotaren hobaria egonez gero, zenbatekoa adierazi.
 - ii. Laguntza jaso duen jarduera finantzatzeko jaso diren beste laguntzak edo diru-sarrerak, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 - b. Kontratatutako langilearen azken 10T agiria, enpresaren ordezkariak sinatuta.
 - c. Kontratatutako langilearen azken bi nomina eguneratuak eta horien ordainketa-ziurtagiriak. Urtea hileko azken eguna baino lehen amaitzen denean, hilabete horri dagozkionak ere aurkeztu behar dira.
 - d. Justifikazio aldiko Gizarte Segurantzako azken bi RNT agiriak (langileen izenen zerrenda). Urtea hileko azken eguna baino lehen amaitzen denean, hilabete horri dagozkionak ere aurkeztu behar dira.

Entitate onuradunak, Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzaren eskariz, haren esku jarriko du beharrezkoa den dokumentazio guztia, aurkeztu dituen datuak egiazkoak direla eta diruz lagundutako jarduera egin dela egiaztatzeko.

Dokumentazioa ezarri den epean aurkeztu ezean, ez-betetzearen espedientea hasi ahalko da. Bertan, entzuteko izapidea egingo zaio entitate interesdunari, eta, hala badagokio, laguntzarako eskubidea galdu dela adieraziko du organo eskudunak, ebazpen baten bidez. Gainera, egokia bada, jaso den laguntza eta horri dagozkion legezko interesak itzultzeko betebeharra ezarriko da.